

Euskal AEko ostalaritzak serie historikoaren emaitzarik onena izan zuen 2023an, % 19,2ko hazkundearen ondoren

Hotelen eta Bestelako ostatuaren azpisektorea hazi da gehien fakturazioan (% 10,5), enpleguan (% 4,5) eta establezimendu-kopuruan (% 4,3)

Euskal AEko Ostalaritza-sektoreak, ostatu-zerbitzuak eta janari- eta edari-zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresak barne hartzen dituenak, ekitaldiko emaitza hobetuz bukatu du 2023. urtea: % 19,2 egin du gora, eta 347 milioira iritsi da, Eustaten datuen arabera. Hori, eskuragarri dagoen serie historikoko emaitzarik onena da, prezio arruntetan baloratuta.

Era berean, negozio-zifra ere gora egin du (% 6,4), bai eta faktore-kostuaren arabera balio erantsi gordinak ere, % 7,4 igo baita (1.848 milioi). Azken horrek sortutako aberastasuna adierazten du, eta dirulaguntzen eta zeharkako zergen doikuntzaren ondoren bitarteko kontsumoak kenduta egiten den ekoizpen gordinaren baliokidea da.

Euskal AEko Ostalaritzak 62.190 langile izan zituen 13.460 establezimendutan. Horrek esan nahi du, aurreko urteko datuekin alderatuta, enplegatuen kopurua % 0,3 jaitsi zela eta establezimenduen % 0,3 igo. Balio absolutuetan, 216 enplegu gutxiago daude, baina establezimenduak zertxobait hazi dira, 13.460 (aurreko urtean 13.420).

Autonomoek sektoreko negozio-zifra osoaren % 7,7 fakturatzen dute, 10 urte lehenago baino hiru puntu pasatxo gutxiago


Soldatapeko langilerik izan gabe autonomoek zuzentzen dituzten establezimenduek ostalaritza-sektoreko negozio-zifraren % 7,7 hartu zuten 2023an. Zenbateko hori ehuneko hiru puntu baino zertxobait gehiago murriztu da 2013. urtearekin alderatuta (% 11), eta oso aldakorra da barne hartzen dituen azpijardueren arabera.

Hala, jabeek soilik lan egiten duten *Edari-establezimenduak* Euskal Autonomia Erkidegoko *Edari-establezimenduen* % 44 dira, eta establezimendu guztien % 20,2 fakturatzen dute. Halaber, mota horretako establezimenduetan lan egiten duten pertsona guztien % 20 autoenplegatuak dira.

Jatetxeen eta janari-postuen kasuan, hamar establezimendutik bat baino gehixeago (% 13) langile autonomoek soilik kudeatzen dute; oro har, establezimendu mota horretako enpleguaren % 2,6 dira, eta sektoreko negozio-zifraren % 2,5.

Euskal AEko Ostalaritza-sektoreko negozio-zifraren banaketa, jarduerataldean arabera. 2023


Ehunekoa



Iturria: Eustat. Zerbitzuen inkesta

Euskal AEko Ostalaritza-sektoreko langile okupatuen banaketa, jarduera- taldeen arabera. 2023

Ehunekoa



Iturria: Eustat. Zerbitzuen inkesta

Ostalaritzaren barruan, Janarien eta edarien dibisioa da nagusi: Jatetxeak, Beste janari-zerbitzu batzuk eta Edari-establezimenduak. Dibisio horrek establezimenduen % 89,1 hartzen du, enpleguaren % 88,9 eta fakturazioaren % 83,3.

Negozio-zifra 3.536 milioi eurokoa izan zen, aurreko urtean baino % 5,6 handiagoa. Enpleguak, aldiz, % 0,9 egin du behera, 511 enplegu galduta; guztira, 55.266 pertsona ari dira lanean dibisio horretan. Establezimenduak ere galdu egin dira, 20 zehazki.

2023, urte nabarmena Jatetxe eta janari-postuetarako

Janarien eta edarien dibisioak, era berean, ekitaldia emaitza positiboarekin amaitzea lortu du: 281 milioi euro, ezagutzen den serie historikoko maximoa, prezio nominaletan hartuta.

Emaitzak jarduera-maila desagregatuagoan aztertuz gero, garrantzi handienekoa den *Jatetxeen eta janari-postuen* azpisektoreak % 8,9ko aldakuntza positiboa izan du fakturazioan, eta enplegua (+% 4,5) eta establezimendu-kopurua (+% 3,2) ere igo egin dira.

2023a urte nabarmentzat har daiteke *Jatetxeen eta janari-postuen* azpisektorerako; izan ere, gehieneko kopuruak ezarri ditu establezimendu-kopuruan (4.422), enpleguan (27.594), salmentetan (1.986 milioi euro), ekitaldiko emaitzan (120 milioi) eta balio erantsian (836 milioi).

Era berean, *Edari-establezimenduen* azpisektoreak bere fakturazioa % 3,6 igo du aurreko urtearekin alderatuz, nahiz eta landunen kopurua (-% 2,5) eta establezimenduena (-% 2,2) murriztu egin diren.

Bestelako janari-zerbitzuen azpisektoreari dagokionez, cateringak, besteak beste, negozio-zifra murriztu egin du (-% 4,6). Landunen kopuruak ere behera egin du (-% 11,5), eta establezimenduen kopuruak soilik egin du gora (% 3,2).

Nabarmenagoa da *Hotelen* eta *Bestelako ostatuen* azpisektoreek osatzen duten *Ostatu zerbitzuen* dibisioaren hazkundera. Enplegua eta eskaintza indartu ditu, 295 pertsona eta 60 establezimendu gehiago baitaude; beraz, 2023ko zifrak honako hauek dira: 6.924 langile (% 4,5 gehiago) eta 1.465 establezimendu (% 4,3 gehiago). Negozio-zifra zazpiehun milioi eurotik gorakoa da (711 milioi); hau da, aurreko ekitaldian baino % 10,5 gehiago fakturatu da.

insertatabla_19898

Adierazle ekonomikoen bilakaera positiboa hiru lurraldeetan

Hiru lurraldeek izan zuten bilakaera positiboa zifra ekonomikoetan, aurreko urtearen aldean. Konparatiboki, Gipuzkoako ostalaritzaren negozio-zifra % 5,7 hazi da, Arabakoa % 6,3 eta Bizkaikoa % 6,9. Establezimendu-kopuruak aldaketa gutxiago izan ditu: Bizkaian eta Gipuzkoan % 0,8 eta % 0,1 hazi da, hurrenez hurren, eta Araban % 1,2 jaitsi da. Enpleguari dagokionez, % 0,8 hazi da Bizkaian, baina jaitsi egin da Araban (% 1,3) eta Gipuzkoan (% 1,5).

insertatabla_19897

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística

Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tef: 945 01 75 62